

# KONTZESIBOAK 1

## NAHIZ ETA... / ...ARREN / BA- ERE (AUNQUE...)

Gutxi ikasi du.

Azterketa gainditu du.

- **NAHIZ ETA** gutxi ikasi, azterketa gainditu du.
- **NAHIZ ETA** gutxi ikasi du**EN**, azterketa gainditu du.
- Gutxi ikasi **ARREN**, azterketa gainditu du.
- Gutxi ikasi du**EN ARREN**, azterketa gainditu du.
- Gutxi ikasi **BA**du **ERE**, azterketa gainditu du.

1. Afaria berandu amaitu dugu. Teatrora garaiz heldu gara.

**NAHIZ ETA -N**

2. Egunero entsalada jaten du. / Ez zaio batere gustatzen.

**ARREN**

3. Buruko mina zeukan. Oso azterketa bikaina egin zuen.

**NAHIZ ETA**

4. Mendira osabarekin joan zen. Aspertu egin zen.

**BA- ERE**

5. Abestea gustatzen zaio. Bakarrik dutxan abesten du.

**ARREN -N**

6. Berria irratian entzun dut. Ez dut kasurik egin.

**NAHIZ ETA**

7. Goizero mendira igoten da. Ez ditu inoiz otsoak ikusi.

**ARREN**

8. Ama eta aita berandutxo etorri dira. Guztiok batera bazkaldu dugu.

**BA- ERE**

9. Gu hondartzatik metroz etorri gara. Nahiko berandu egin zaigu.

**NAHIZ ETA -N**

10. Partidua oso ondo jokatu dute. Galdu egin dute.

**ARREN -N**

11. Egia kontatu diete. Ez diete kasurik egin.

**NAHIZ ETA**

12. Telesaila ikusi dugu. Ez dugu esaten duzuna ikusi.

**ARREN -N**